



Jokin Izar | OROKIETA HERRI ESKOLA (ZARAUTZ)

3. saria

(<http://www.orkieta.net/>)

LEHEN HEZKUNTZA II

“KOSMODISEARI ESKER, BESTE IKASTETXE BATZUETAKO IKASLEEKIN HARREMANETAN JARTZEKO AUKERA IZAN DUGU”

Jokin Izar Zarauzko Orokieta Herri Eskolako “Buztinzuri” taldeko arduraduna da. Talde horrek, hain zuzen, Lehen Hezkuntza II etapako hirugarren saria irabazi du. Izarrek azaldu du, oro har, Kosmodiseako esperientzia “oso positiboa” izan dela, eta ikasleek gogo onez jardun dutela lanean ekimeneko atal guztietan. *“Halere, gehien gustatu zaiena Mito Planetako bideoaren grabaketa izan da; hor aritu dira, batez ere, buru-belarri”.*

- Zer iruditu zaizkie emaitzak ikasleei?

- Oso gustura daude. Hirugarren saria irabazi dutenak, berriz, pozez zorutzen.

- Zure iritziz, Kosmodisean parte hartuta, ikasleek zer balio positibo eskuratuko dituzte?

- *Batetik, IKT tresnekin lanean jardutea; asko ikasten baitute horiei buruz. Eta bestetik, taldean lan egitea; izan ere, nork bere lanarekin kritikoa izaten ikasten dute, eta baita beste ikastetxeetako lanekin ere.*

- Zer da, zure ustez, Kosmodisea 2009-2010eko gauzarik onena? Zer alderdi hobetuko zenituzke?

- *Aurreko galderari erantzundakoaz gainera, beste ikastetxeetako ikasleekin harremanetan jartzeko eman digun aukera nabarmenduko nuke.*

Hobetu daitezkeen zenbait alderdi:

- *Lanak egiteko denborak: helburuak betetzeko ematen diren epeak luzeagoak behar lukete. Estresatuta eta larri ibili gara epeak betetzeko.*
- *Ondo legoke ekainean bukatzea.*
- *Ebaluazioa: gaur egungo itemak aldatu eta maila bakoitzera egokitu.*

- Parte hartuko al duzue hurrengo Kosmodisean?

- *Printzipioz, prest gaude. Halere, ordurako “Eskola 2.0” planaren barruan egongo gara, eta ez dakigu horrek zenbateraino eragingo digun Kosmodisean parte hartu ahal izateko.*

- *Ideiak, iritziak, iradokizunak, oharrak, kritikak...*

- *Simulagailuaren joko aldatzea: ez zaie batere gustatu, ez zaie erakargarria iruditu eta ez dute ezertxo ere gozatu.*
- *Kursaaleko ekitaldia. “Arinagoa” izan behar luke; musika, dantza eta ikuskizun gehiagorekin.*